



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 11n

96 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua ([2. or.](#))

H SAILA:

**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

—2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak ([26. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko azaroaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 151 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**Lehena.** 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko Arauek ezarritako jardunbidez bideratzea. Arau horiek Biltzarreko Mahaiak 2000ko azaroaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez onetsi zituen.

**Bigarrena.** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat** irekiko da, **2000ko azaroaren 27ko eguerdiko hamarretan bukatuko dena**. Epe horretan, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek osoko zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte. Eta ondoren, beste epe bat irekiko da, **2000ko abenduaren 4ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek artikuluei eta kontabilitate-lerroei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 126 eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### **I. TITULUA** **Kredituak eta haien aldaketak**

#### **I. KAPITULUA** **Hasierako kredituak eta horien finantzaketa.**

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

Onetsi egin dira 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Honako atalak dituzte:

a) Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak.

c) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa-, inbertsio- eta finantzaketa-programak, baita finantzen egoera-orriak ere.

**2. artikulua.** Kreditu eta eskubide ekonomiko-  
en zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetzeko, 392.524.921.000 pezetako kopuru bateratua duten kredituak onetsi dira.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen diru sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldian ustez likidatuko diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 392.524.921.000 pezetako kopuru bateratua.

#### **II. KAPITULUA** **Aurrekontuetako kredituen aldaketa**

**3. artikulua.** Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen aginduen arabera izanen dira, baldin eta foru lege honek agindu horiek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, kontusailen arteko funts mugimenduak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko baldin eta kontusail horietan helburu berbera duten kredituak, Europako Batasunak horiek kofinantzatzeagatik horien gaineko kontrola hobetzea eskatzen duelako soilik bereizten direnak, badaude.

Orobat, ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko hurrengo programako kontusailen arteko funts mugimenduak: 52. programa, "Su-itzaltzea eta salbamendua", baldin eta plantilla-aldaketen ondoriozkoak badira, funtzionarioen atxikipena ondatu egin delako "Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren" eta "Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoaren" artean. Lehendakaritza Justizi eta Barne kontseilariari ahalmena eman zaio aipatu mugimenduak baimentzeko.

#### 4. artikulua. Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a) letratik f) letrara bitartean aipatutako kredituez gain, 2001. urteko ekitaldian ondoko kredituez ere gehikuntzak izan ahalko dituzte:

1. Lehendakaritza Justizi eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 01400-7810-1269 kontusaila, 10002 proiektua, "Nafarroako zentroetan lokalak erosi eta hobetzea" izenekoa.

b) 04000-1620-3-1226, 20000 proiektua, "Langileei buruzko Hitzarmen indarduna aplikatzeko funtsa" izenekoa.

c) 04300-1309-1226 kontusaila, 20000 proiektua, "Aldi baterako kontratuen bukaerako kalte-ordaina" izenekoa.

d) 04000-1709-1226, 20002 proiektua, "Epaiak betearaztea", epai horietan ezartzen diren zenbaiten neurrian.

Betearazte horrek I. kapitulu ekonomikoari ez dagokion gasturik ekartzen baldin bada, horretarako kontusail berariazkoa gaitzen ahalko da; horrek ere izaera gehigarria izanen du. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidiarioa Nafarroako Gobernuaren esku izatean funts ekonomikoak egotea beharrezkoa gertatzen denean, baita Zerga Gaietarako Txosten eta Ebazpen Organoarenak eta Zerga Administrazio-

aren organo kudeatzailearenak ere, gastuen itzulketak eskatzen baldin bada, eta era berean, Ezinbesteko Desjabetzapenerako Probintzi Epaimahaiaren erabakiak ere, eta Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen FEOGA-Bermearen laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak ere.

e) 04120-1001-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Lehendakari ohi eta kontseilari ohientzako prestazioak" izenekoa.

f) 04120-1239-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Funtzionarioen famili laguntza, osagarri berriak, itzultzeak, eszedentziak eta beste batzuk" izenekoa.

g) 04120-1309-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan kontratudunen familia laguntza, osagarri berriak, itzultzeak eszedentziak eta beste batzuk" izenekoa.

h) 04120-1614-3141 kontusaila, 20002 proiektua, "Aldez aurretik jubilatzeagatik jaso beharreko kalte-ordaina, 259/1988 Foru Dekretua" izenekoa.

i) 04120-1620-2-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan-istripuengatik aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea" izenekoa.

j) 04120-1700-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Kalte-ordaina. Derrigorrezko leku aldaketa, bizilekuaren aldaketa eta guzti" izenekoa.

k) 04120-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Lan-istripuengatik kalte-ordaina" izenekoa.

l) 04200-1620-3136 kontusaila, 20002 proiektua, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izenekoa.

m) 04300-1709-1226 kontusaila, 20002 proiektua, "Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena" izenekoa.

n) 02400-4809-2211 kontusaila, 50002 proiektua, "Diru laguntzak" izenekoa eta 02400-8319-2211 kontusaila, proiektu berekoa, "Maileguak" izenekoa.

ñ) 2100-6021-2-2221 kontusaila, 51000 proiektua, "Tuterako komisariako obrak" izenekoa.

o) 06000-6001-1441 kontusaila, 60000 proiektua, "Espetxe berria eraikitzeko lurak erostea" izenekoa.

p) 06000-4810-1421 kontusaila, 60001 proiektua, "Abokatuen Elkargoari transferentziak, atxilotuei dohaineko laguntza emateagatik" izenekoa.

q) 06000-4810-2-1421 kontusaila, 60001 proiektua, "Prokuradoreen Elkargoari transferentziak" izenekoa.

r) 06000-6020-1421 kontusaila, 60001 proiektua, "Eraikin judizialak" izenekoa.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko hurrengo kontusailak:

a) 11410-9500-6331 kontusaila, 12001 proiektua, "Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua" izenekoa.

b) 11300-6020-6127 kontusaila, 14002 proiektua, "Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezia birmoldatzea eta janzteia".

c) 11300-8500-6127 kontusaila, 14002 proiektua, "Alor publikoko akzioak erostea" izenekoa.

d) 12000-6080-6111 kontusaila, 20000 proiektua, "Euroan sartzea" izenekoa.

e) 12100-6080-6131 kontusaila, 21000 proiektua, "Tributu-informatikako sistema integratua" izenekoa.

f) 11100-2269-9111 kontusaila, 30000 proiektua, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Toki Administrazio Departamentuko kontusailok:

a) 21500-7600-9129 kontusaila, 10001 proiektua, "Kalitate eta modernizazio Plana" izenekoa.

b) 21100-4600-9129 kontusaila, 10002 proiektua, "Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuak sustatzea" izenekoa.

c) 21100-7600-9129 kontusaila, 10002 proiektua, "Toki Erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

d) 21120-8206-1242 kontusaila, 11000 proiektua, "Udal funtzionarioen montepioa kudeatzea" izenekoa.

e) 21220-4600-9125 kontusaila, 11001 proiektua, "Toki entitateen arazoei aurre egiteko finantza-laguntzak" izenekoa.

f) 21300-7600-4411 kontusaila, 12001 proiektua, "Ibaiak arazteko eta osasuntzeko Plan Zuzentzailea" izenekoa, behean aipatzen diren obrei 2000. urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin; alegia, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazio Departamentuak izenpetu duten Hitzarmenean, hiri urbeltzak saneatu eta arazteko Plan Nazionaleko jarduketei buruzkoan, diren obrak, Europako Batasuneko kohesio funtsen kontura finantziatzeko proiektuen arabera.

g) 21300-7600-4421 kontusaila, 12002 proiektua, "Arga ibaiko eskualde-plana" izenekoa.

h) 21300-7600-9122 kontusaila, 12002 proiektua, "Eskualde behartsuetako azpiegituren Plan berezia" izenekoa.

4. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 32200-4459-4311 kontusaila, 2000 proiektua, "Zaharberritze bulegoer laguntzak" izenekoa.

b) 32200-6000-4311 kontusaila, 2000 proiektua, "Lurra erosi eta etxebizitzak eta eraikinak sustatzea" izenekoa.

c) 32200-6000-2-4311 kontusaila, 2000 proiektua, "Eroslehetasun eta atzera-eskuratze eskubi-deak gauzatzea, eta lurzoruak, eraikinak eta etxebizitzak eskaintzea" izenekoa.

d) 32220-7800-4312 kontusaila, 20000 proiektua, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako diru-laguntza eta sorospinak. Foru Programa" izenekoa.

e) 31200-4600-5331 kontusaila, 30000 proiektua, "Toki Erakundeentzako kalte-ordain eta laguntzak" izenekoa.

f) 31200-4809-5331 kontusaila, 30000 proiektua, "Partikular eta sozietateentzako kalte-ordain, aseguru eta laguntzak" izenekoa.

5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontusailok:

a) 40200-1239-4211 kontusaila, 00000 proiektua, "Zerbitzuen aitortpenetarako, osagarri berrietarako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

b) 41000-1310-4211 kontusaila, 00000 proiektua, "Aldi baterako langileak kontratatzea" izenekoa.

c) 41000-1600-4211 kontusaila, 00000 proiektua, "Gizarte Segurantzza" izenekoa.

d) 41610-4600-4222 kontusaila, 10002 proiektua, "Eskola-kontzentrazioen eta Departamentuak ikasleak eskolaratzeko erabilitako udal eraikinen funtzionamendurako diru-laguntza" izenekoa.

e) 41620-4800-4251 kontusaila, 10002 proiektua, "Irakaskuntza ertain eta goi ikasketetarako beka eta laguntzak" izenekoa, beka deialdiaren baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek haien onura izan dezaten bermatzeko adinako zenbatekoan.

f) 41620-2210-4252 kontusaila, 10004 proiektua, "Jantokiak" izenekoa.

g) 41620-2230-4252 kontusaila, 10004 proiektua, "Eskola garraioa" izenekoa.

h) 43100-4455-4224 kontusaila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko hitzarmena: Oinarrizko ditu-laguntza" izenekoa, eta 43100-4455-3-4224 kontusaila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmena: Irakaskuntza- eta ikerkuntza-proiektuak" izenekoa, biak 41000 proiektukoak, finantzaketa hitzarmena sinatu ondoren sortzen diren konpromisoak finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoan.

i) 43100-4800-4251 kontusaila, 41000 proiektua, "Prestakuntza eta Ikerketa eta Garapena (I+G) Planaren laguntzak" izenekoa.

j) 43100-6001-4241 kontusaila, 41000 proiektua, "N.U.P.erako desjabetzeak" izenekoa, desjabeturiko lursailak itun bidez zehaztuko den prezioan ordainduko direla bermatzeko adinako zenbatekoan.

k) 43200-4811-4551 kontusaila, 42000 proiektua, "Eremu ez euskalduneko ikastoletarako diru-laguntza berezia" deiturikoa.

l) 42110-4816-4561 kontusaila, 51000 proiektua, "Kultur eta arte entitateekin sinaturiko hitzarmenak" izenekoa.

m) 42110-7600-4511 kontusaila, 51000 proiektua, "Gaztambide Antzokia zaharberritzea" izenekoa.

n) 42120-7600-2-4521 kontusaila, 51000 proiektua, "Kultur Etxeak eta udaleko beste kultur guneak eraiki eta ekipatzea" izenekoa.

ñ) 42220-6080-4531 kontusaila, 52000 proiektua, "Oteiza Fundazioko Museo Etxea. Inbertsioak eta gastuak" deiturikoa.

#### 6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 ekonomi kodekoak, osasun arloko udal langile transferituen ordainsariak ordaintzeko direnak, Foru Administrazioakoak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa Osasun Eskualdeetan Banatzeari buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldadak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 52000-1239-4112 kontusaila, 40000 proiektua, "Zerbitzuen aitortpen, famili laguntzaren gehikuntza, gradu, antzinasun, osagarri berri, eszedentziatik itzultze eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

c) 52000-1309-4112 kontusaila, 40000 proiektua, "Zerbitzuen aitortpen, antzinasunaren gehikuntza, osagarri berri, eta abarretarako aurreikuspena" izenekoa.

d) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoa dutenak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan honako gastu-programetan kokatuak: 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47 eta 49.

e) 52300-2269-4112 kontusaila, 47005 proiektua, "NGOIarekin koordinazioa, proiektuak eta programak" izenekoa.

f) 52300-4809-4122 kontusaila, 47006 proiektua, "Farmazia prestazioak" izenekoa.

g) 52300-4809-2-4122 kontusaila, 47006 proiektua, "Zurgatzaileak eta beste produktu batzuk" izenekoa.

h) 52202-2590-6-4112, 48000 proiektua, "Organoen transplanteak" izenekoa.

7. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko hurrengo kontusail hau:

a) 62220-4709-4551, 3100 proiektua, "Lurreko telebista digitaleko zerbitzuak".

8. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 71210-2400-7131 kontusaila, 10000 proiektua, "Produktzio integratuaren sustapena" izenekoa.

b) 72210-7700-7161 kontusaila, 10000 proiektua, "Kooperatiba-araubideko produktzio-bideetarako eta makineriarako diru-laguntzak" izenekoa.

c) 71220-4700-7191 kontusaila, 10002 proiektua, "Aseguru primen konpentsazioa" izenekoa.

d) 71220-4700-2-7191 kontusaila, 10002 proiektua, "Merkataritza-kooperatibentzako laguntza, hondamen-kalteak direla-eta" izenekoa.

e) 71220-4700-3-7191 kontusaila, 10002 proiektua, "Aseguragarriak ez diren nekazaritza-ondasunen eta egituren ohiz kanpoko kalteak" izenekoa.

f) 71220-7700-7131 kontusaila, 10002 proiektua, "Nekazaritza-ustategien eraginkortasunaren hobetzea, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

g) 72120-7700-2-5312 kontusaila, 20001 proiektua, "Ustategien oinarrizko azalera eratzeko laguntzak (Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Legea)" izenekoa.

h) 72210-7701-7161 kontusaila, 21000 proiektua, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako diru-laguntzak, kooperatibak ez direnentzat, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

i) 72210-7701-6-7161 kontusaila, 21000 proiektua, "Diru-laguntza, kooperatiben nekazaritza-produktuak biltegitatu eta eraldatzeko tegiak

eraiki, zabaldu edo hobetzeko, PDR (FEOGA-G)” izenekoa.

9. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 81130-6015-5351 kontusaila, 10001 proiektua, “Industri azpiegiturako inbertsioak” izenekoa.

b) 81120-7701-2-7242 kontusaila, 30001 proiektua, “Inbertsio eta enpleguarengatiko funts galdurako diru-laguntzak”.

c) 30002 proiektuak, “Produktzio berrantolamendua”, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak.

d) 81200-7810-3-5424 kontusaila, 40002 proiektua, “Proiektu sektorial eta tematikoentzako kapital transferentziak” izenekoa.

e) 82210-7600-2-7512 kontusaila, 60002 proiektua, “Toki entitateentzako transferentziak, hitzarmenen bidezkoak” izenekoa.

f) 84100-4810-3-3221 kontusaila, 81001 proiektua, “Etorकिन prestakuntza eta laneratzerako ekintzak”.

10. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko kontusailok:

a) 91200-4810-3-1342 kontusaila, 00000 proiektua, “Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak” izenekoa.

b) 93240-4600-3-3134 kontusaila, 21003 proiektua, “Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko”.

c) 93240-4809-3134 kontusaila, 21003 proiektua, “Erditze multiplea izan duten familiei laguntzea” izenekoa.

d) 93240-4809-2-3134 kontusaila, 21003 proiektua, “Laguntzak, etxez etxeko laguntza pertsonala emateko” izenekoa.

e) 93240-4809-3-3134 kontusaila, 21003 proiektua, “Familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzak familientzat” izenekoa.

f) 93300-4809-3134 kontusaila, 24002 proiektua, “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” izenekoa.

g) 93300-4809-2-3137 kontusaila, 24002 proiektua, “Bazterkeriaren aurkako plana” izenekoa.

h) 93300-4600-3134 kontusaila, 24003 proiektua, “Oinarritzko gizarte zerbitzuak” izenekoa.

i) 93300-4809-3142 kontusaila, 25001 proiektua, “Pentsio ez-kontributiboak” izenekoa.

j) 95010-7600-2-4571 kontusaila, 40001 proiektua, “Tafallako Belodromoa” izenekoa.

k) 95010-7600-3-4571 kontusaila, 40001 proiektua, “Munduko pilota txapelketarako eraikinak egiteko lankidetzak hitzarmenak” izenekoa.

11. Nafarroako Kontseiluaren ondoko kontusailak:

a) C0000-2300-1122 kontusaila, 00000 proiektua, “Dietak, lokomozioa eta bidaiak gastuak” izenekoa.

b) C0000-2239-1122 kontusaila, 00000 proiektua, “Kontseilukideei eta bestelako adituei eskatutako ponentzietarako bestelako sariak” izenekoa.

12. Nafarroako Parlamentuaren ondoko kontusailak:

a) P0000-7450-1111, 01001 proiektua, “Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak” izenekoa, Biltzarren egoitza berrirako kreditu gehiago behar izanen direlakoan.

b) P2000-4450-1111 kontusaila, 01003 proiektua, “Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak”, Nafarroako Arartekoak kreditu gehiago behar izanen dituelakoan.

c) P2000-4450-1111 kontusaila, 01003 proiektua, “Nafarroako Gobernuaren kapital transferentziak”, Nafarroako Arartekoak kreditu gehiago behar izanen dituelakoan.

**5. artikulua.** Kreditu soberakinen norakoa, bete gabeko lanpostuak direla eta.

Bete gabeko lanpostuak direla eta eman daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabiltzen ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

## II. TITULUA

### Langileriaren gastuak

#### I. KAPITULUA

##### Jarduneko langileriaren ordainsariak

**6. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-eta funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

2001eko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko langileen ordainsariak, 2000ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren

30eko 18/1999 Foru Legean ezarritakoak, 100eko 2 gehituko dira –aipatutako 18/1999 Foru Legeko lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa bete ondoren–. Horrek ez du ezertan galaraziko lanpostu bakoitzari atxikitakoek zailtasun tekniko berezi, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasuneko edukiarekin dagokien harremana gordetzea ziurtatzeko beharrezkoak diren ordainsari-egokipenak egitea, hala badagokio.

**7. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, betiere foru lege honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

**8. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideak eta libreki izendaturiko behin-behineko langileak.

1. 2001eko ekitaldian, Nafarroako Gobernuo kideen ordainsariak, foru lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute 2000an ezarritakoekiko.

2. 2001eko ekitaldian, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen behin-behineko langile libreki izendatuen ordainsariak, foru lege honetako 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute 2000an ezarritakoekiko.

## II. KAPITULUA

### Klase pasiboak

**9. artikulua.** Xedapen orokorrak.

1. 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina, eguneratzeko eskubidea duten Nafarroako administrazio publikoetako klase pasiboan pentsioak 100eko 2 gehituko dira, foru lege honetako lehen xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian xedatutakoa bete ondoren.

2. Halaber, aipatu klase pasiboan dagozkien famili laguntza edo seme-alaba elbarrituengatik ordainketek ere arestian aipatu den gehikuntza izanen dute.

**10. artikulua.** Funtzionarioen pasiboan araubidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateratuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraituz, eskubide pasiboan araubidea martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea baino lehen indarra zuten xedapenei lotuko zaie. Soldata erregulatzailerak zehazteko, aintzakoztat hartuko dira funtzionarioek jasotako ordainsari handienak, aipatu foru legearen eta hura betetzeko emandako Ordainsarien Behin-behineko Erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera, eta horiei Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan hurrengo urteetarako ezarritako ehunekoak gehituko zaizkie. Artikulu honetan aipatutakoa ez zaie ezarriko ez lan istripuaren ondoriozko ezgaitasunengatik pentsioei, ez lanbideko eritasunengatik pentsioei ere.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen arabera, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan hartuko. Urte horien barnean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den Administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako erabakiari eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraituz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo Toki Erakundeetako Administrazioaren montepioen bati atxikitako funtzionarioen erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratuak badira, honako hauek zenbatuko dira, pentsioen zio den egintza gertatzen den eguneko atzeraeginekiko ondorioz: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, betiere, aipatu aldiak aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikoko ehunekoak edo kuota.

Aurreko idatz-zatian aipatu funtzionarioek gauzatutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inolaz ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipatu erregimenen ondoriozko pentsiorik gauzatu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI

delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu eginen baitira horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barnean dauden funtzionario publikoek 2000. urtean hartutako erretiro eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontutan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoak 2001. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoie geroko aurrekontuei buruzko foru legeek, hau barne, finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 2001erako soldata eta garestitze plusaren zenbatekoak lortu ahal izateko, jarraian dagoen taulan agertzen diren zifrei hurrengoak ezarri beharko zaizkie: foru lege honetako lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa eta lege testu honetako 9. artikuluan ezarritako ehunekoak.

Maila	Soldata	Garestitze plusa
0	1.841.972	1.204.125
1	1.544.591	1.140.707
2	1.270.655	1.082.197
3	1.131.159	1.052.446
4	1.075.127	1.040.523
5	1.027.879	1.030.457
6	984.347	1.021.140
7	943.091	1.035.729
8	914.333	1.068.013
9	872.702	1.059.114
10	848.193	1.034.490
11	826.131	1.021.588
12	778.740	993.607
13	746.426	977.767
14	687.471	947.684
15	633.181	904.296
16	600.075	884.799
17	545.354	865.342

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatik jubilaziorik dagoenean, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hil ondorengo alargunentzako edo umezurtzendako pentsioetan ere, funtzionarioak bere lanpostuarengatik jubilatu edo hil aurreko urtean jasotako ordainsariek osatuko dute alokairu arautzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa izanen da, funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan gehitutakoak erantsiz, 2000koa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketa lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeetan ezarritako pentsio igoen ehunekoak erantsirik.

Horretarako, aipatu foru legea baino lehenago zeuden lanpostu edo mailetan sartuko dira 1984ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako funtzionarioak, orain betetzen dituzten lanpostuen eta lehenagokoen arteko balioaldiz edo analogiaz.

5. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Batera-tuak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorren 1. idatz-zatian xedatutakoekin bat, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden klase pasiboen pentsioentzat ez da aplikagarria izanen aipatu Langileriaren Estatutua; ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeetan ezarritako ehunekoak bakarrik gehituko zaie.

6. 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko erretiro-pentsioa Nafarroako administrazio publikoetako E mailako funtzionarioentzat finkatuko den oinarritzko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da. Idatz-zati honek xedatutakoa bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera eguneratzeko eskubidea duten pentsioei.

Osasun Laguntza-Erabilera Berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikpenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko erretiro pentsioaren 100eko 55 "Oinarritzko soldata" kontzeptuari dagokiola eta gainerakoa "Bizitzaren garestitze plusa" kontzeptuari dagokiola.

7. 2000ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioa ekitaldi horretarako ezarriko den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da.

Osasun Laguntza-erabilera berezia sistemako kotizazioengatik egin beharreko atxikpenak kalkulatzeko, ulertuko da gutxieneko alargun-pentsioaren 100eko 55 "Oinarritzko soldata" kontzeptuari



dagokiola eta gainerakoa "Bizitzaren garestitze plusa" kontzeptuari dagokiola.

8. Artikulu honetako 7. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako administrazio publikoen klase pasiboen ezein montepioen kargura emandako alargun-pentsioen gutxieneko kopurua, zein bere Erregelamendua- ren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hamazortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkeraren arabera.

Beraz, gehikuntza honetatik at geratu da aipatu 5/1991 Foru Legeak ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzen zen arautegiaren arabera emandako umezurtz-pentsio oro, onuradunaren ezgaitasuna dela-eta aitorturikoak salbu.

9. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pensioei buruzko Erregelamenduko 8. artikuluko 3. idatz-zatian, eta udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduko 10. artikuluan aipatzen diren zurtzasun-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten zurtzasun-pentsioak onartu eginen dira; betiere, hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak bete egin beharko dira pensioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, haren ezkontidea -alargun-pentsioa jasotzen duena hiltzen den egunean.

10. Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai alargun-pentsioarekin.

**11. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioetan sarturik ez dauden funtzionarioen eskubide pasiboak.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izanen ondoren aipatzen diren funtzionarioentzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatean sartuta daudenentzat, Estatuko Administrazioetik eginkizun eta zerbitzuak transferitzeari buruzko Errege Dekretuen ondorioz; betiere, hasieran zeukaten gizarte segurantzako edo aurreikuspen sistemarekin jarraituko dute.

b) Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik egon eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoetan sartutakoentzat.

**12. artikulua.** Ikastetxeetako funtzionarioen eta hezkuntzako ikuskatzaileen borondatezko erretiroa.

1. Funtzionarioek beren funtzionario izaerari uko egiten badiote edo beren borondatez jubila-

tzen badira 60 urtetik gora dutela eta zerbitzuan 28 urte eginda, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko Lege Organikoaren (LOGSE) bederatzigarren xedapen iragankorraren babesean eta bertan adierazten diren baldintzak betez, Foru Komunitateko Administrazioak borondatezko erretiro prima bat emanen die; prima hori xedapen iragankor horretan aurreikusitako aparteko haborokinaren osagarri izanen da.

2. Erretiro prima eskuratzeko, funtzionarioak 1989ko irailaren 1ean jardunean egon beharko zuen, egoera horretan etenik gabe jarraitu eta data horretatik aitzina Nafarroako Foru Komunitatean dauden ikastetxeetako plantilletako lanpostuetan aritu; hezkuntza ikuskatzaileen eta hezkuntza administrazioaren zerbitzuko ikuskatzaileen kidegoko funtzionarioen kasuan, ez da derrigorrezkoa izanen ikastetxeen plantilletako lanpostuei atxikita egotea.

3. Aurreko idatz-zatietan aparteko haborokinari eta erretiro primari buruz xedatutakoa, ekainaren 27ko 5/1990 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren babesean, edo geroagokoenean, funtzionario bihurtu ziren langileei aplikatuko zaie, baita lan itunpeko irakasle finkoei ere.

4. Borondatezko erretiroarengatik sari osagariaren zenbatekoa, foru lege honetako 1. eranskinen funtzionarioaren adinaren, zerbitzu urteen eta sartuta dagoen kidegoaren arabera ezartzen dena izanen da, eta jubilatuaen ordainsariei dagokien aurrekontu-sailaren kargura ordainduko da.

### III. KAPITULUA Beste zenbait xedapen

**13. artikulua.** Langileen aldi baterako kontratazioa.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, zerbitzuaren beharrak hala eraginda, beharrezkoak diren langileak administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatuzko, foru lege honetan ezarritako aurrekontu-mugen barnean.

**14. artikulua.** Lanpostuak berriz egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik funtsik gabe gelditutako lanpostuak, bete gabeak ez direnak, berriz ere egokitzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, zuzenean eta salbuespen gisa, eginkizunak berriz eman eta maila berean egokitzen diren lekualdaketak eginen ditu.

### III. TITULUA Finantza eragiketak

#### I. KAPITULUA Abalak

##### 15. artikulua. Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak guztira 2.000 milioi pezeta osatzen duten abalak eman ahal izanen ditu.

#### II. KAPITULUA Zorpetzea

**16. artikulua.** Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo zor publikoa jaulkitzeko. Haren muga izanen da 2001eko abenduaren 31ko saldo biziduna ezin izanen dela izan 2001eko urtarilaren 1ekoa baino handiagoa.

#### IV. TITULUA Toki entitateak

**17. artikulua.** Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsa.

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa, 2001erako, 26.431.980.000 pezetakoa izanen da.

2. 2000ko ekitaldirako ezarri den partaidetzaren zenbatekoa, honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 16.719.799.000 pezeta.

II. Kapital transferentziak: 6.696.261000 pezeta.

III. Beste laguntza batzuk:

a) Iruñeko Udalar, "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik: 2.113.823.000 pezeta.

b) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 30.000.000 pezeta.

c) Nafarroako udalentsako finantza-konpentsazioa: 872.097.000 pezeta, zeintzuetatik 170.929.000 pezeta zenbait udali emanen baitzaio, biztanle ponderatu/aplikatutako gastua aldagaia konpentsatzearen, eta 701.168.000 pezeta 4.001 eta 40.000 biztanle bitarte duten udalei, finantza-efizientzia dela eta.

**18. artikulua.** Transferentzia arrunten funtsa eta "beste laguntza batzuk" izenekoaren c) idatzatia banatzeko formula.

1. 2001. urteko ekitaldian, ondoko legeotan ezarritakoa izanen da banaketa egiteko formula: abenduaren 30eko 23/1997 Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartze funtsa 1998ko eta 1999ko aurrekontu ekitaldietarako banatzeko zenbatekoa eta formula ezartzen dituen; eta 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legeko hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian onetsitako aldaketa.

2. Banatzeko formularen erabiliko diren aldagaien balioak ondokoak izanen dira:

Aldagaia	2001eko ekitaldia
Biztanleria	2001-1-1eko errolda
Biztanleriaren aldaketa 10 urtetan	1991-2001ko errolda
Entitate kopurua	1996ko errolda
Biztanleria barreiatua	1996ko errolda
Biztanleria 16 urte	2001-1-1eko errolda
Biztanleria 65 urte	2001-1-1eko errolda
Langabetu kopurua	2000. urtea
Hiri-lurzoruaren zabalera garbia	2000-1-1eko datuak
Zerga ahalegina:	1999. urtea
- Dirusarrera kitatuak	
- Merkatuko balioa	
- Katastroko balioa	
Komunalaren balio katastrala	2001-1-1eko datuak

3. Kontzejuez denaz bezainbatean, 2001. urterako, 1997an lortu zuten zenbateko osoa bermatuko zaie.

**19. artikulua.** Kapital transferentzien funtsa. Birprogramazio ekonomikoa

Indarrrik gabe gelditzen dira 1999ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1998 Foru Legea eta 2000ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeko 20. artikuluko 3. ataleko lehenbiziko lerrokada, hain zuzen ere, hiri-hondakin solidoen arloan Iruñerriko Mankomunitatearekin sinaturiko hitzarmeneko kredituei dagokienez. Kreditu horiek 1999. urtean 397.840.000 pezeta egiten zuten guztira eta 2000. urtean 968.360.000 pezeta dira, eta asignazio horiek birprogramatu egin dira, kontzeptu bererako, 2001, 2002 eta 2003.eko ekitaldietako aurrekontuetako kontusail modura, foru lege honen sei garren xedapen gehigarrian aipatzen den bezala.

**20. artikulua.** Europako Batasuneko diruez finantzatzeko inbertsioen Plan Osagarria.

Ekitaldi ekonomiko honetan erabiltzen ez diren Plan Osagarriko baliabideak hurrengo ekitaldikora pasatuko dira.

**21. artikulua.** Elkarte tradizionalen inbertsioetarako diru laguntza eta onurak.

Bardeako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako diru laguntzak eta gainerako onurak jaso ahal izanzen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

**22. artikulua.** Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 917.392.000 pezeta-ko ekarpena egingen du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren barnean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen artean sortzen diren pentsioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2000ko ekitaldian sortutako kostuen banaketan udal bakoitzari esleitutako kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 497.362.000 pezeta banatuko ditu Iruña, Tuter eta Tafallako udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 2000ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

**23. artikulua.** Administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

10002 proiektukoak diren "Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena" izeneko 21400-4600-9129 kontusailak eta "Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena" izeneko 21400-7600-9129 kontusailak finantzatzeko dituzte Nafarroako Gobernuak eta elkartu egiten diren toki entitateek sinatu beharreko hitzarmenetako aurreikuspenak.

"Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena" izeneko 21400-7600-9129 kontusaila mankomunitateen egoitzak eta beren administrazio-zerbitzuak elkarrekin ematen dituzten entitate asoziatiboen egoitzak eraiki eta hobetzeko erabili ahal izanzen da. Lehenetsunak 2001-2003rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz ezarriko dira. Kalifikazio haiek Plan hari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duen Foru Dekretuan aipatzen dira.

## V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

**24. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak.

Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak Mahaiak edo Lehendakariak eskatu ahala libratuko dira, irmoki eta aldizkakotasunez.

**25. artikulua.** Nafarroako Kontseilua.

Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen da Nafarroako Kontseilua, haren independentzia organikoari eta funtzionalari kalterik egin gabe.

Era berean, Nafarroako Ogasuneko Kontu-hartzailetza Nagusiari lotuta egonen dira haren jarduketak ekonomikoak eta aurrekontu-jarduketak.

**26. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuaren dotazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko transferentzia arruntak, oinarrizko finantzaketa xede, aldez aurreko hiruhilekoetan egingen dira, oro har, behar handiagorik frogatzen ez bada, behintzat.

Irakasleen ordainsari osagarriari aurre egiteko xedearekin Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenean dauden transferentzia arruntak kopuru bereko lau epetan libratuko dira, aldez aurreko hiruhilekoetan, aldez aurretik haren Gerentziak justifikatu ondoren.

Irakaskuntza eta ikerketa proiektuei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenean dauden transferentzia arruntak bi epetan libratuko dira, aldez aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko kapital transferentziak aldez aurretik haren Gerentziak hori eskatuz eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

**27. artikulua.** Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren aurrekontuaren dotazioak.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari egingen zaizkion transferentzia arruntak aldez aurreko hilabeteetan libratuko dira, oro har, behar handiagoak justifikatzen ez badira, behintzat.

Kapital transferentziak libratuko dira Partzuegoaren lehendakariak eskatzen dituen neurrian, haiek eskatzea eragin duen gastua egin dela frogatuz.

**28. artikulua.** Herrietako kontsultategien diru laguntzak.

47000 zenbakiko "Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta birmoldatzeko transferentziak" proiektuan dagoen kontusailarekin –herrietako kontsultategiak eraiki eta birmoldatzeko baita– ehuneko 100eko diru laguntza emanen da, diru laguntza horiek emateko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen arauoinarrietan ezarriko diren baldintzei jarraituz.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean burutuko du herrietako kontsultategien ekipamendua.

**29. artikulua.** Organo birlandaketen sustapena

Giza-ehun eta organoen birlandaketa eta dohaintza sustatzeko xedearekin erietxeek hartzen duten diru kopurua, erabiltzen ahalko da hala ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuetarako nola ondasun inbentariagarrietako gastuetarako, baldin eta zerikusia badute ematen den diruaren xedearekin.

**30. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetako aldaketak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzaileak baimena ematen ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 46.2 artikuluan aipatzen diren aurrekontu-aldaketak egiteko, erakunde autonomo horren esparruan.

**31. artikulua.** Sindikatuak eta enpresarien elkarteak.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren aurrekontuan sindikatuentzat egiten den gastu-kontsignazioa, guztien artean banatuko da, bakoitzak Foru Komunitatearen eremuan duen ordezkaritza-mailaren arabera, eta 2000ko abenduaren 31n lorturiko emaitzei jarraikiz.

Halaber, "Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuak, gizarte-ekonomiako elkarteak eta enpresari-elkarteak egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila, haietako bakoitzak aipatu Kontseiluan duen kide-kopuruaren arabera banatuko da aipatu entitateen artean.

Era berean, "Sindikatuaren hauteskunde-prozesua jarraitzeko Batzordea osatzen duten sindika-

tuei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko Batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan duten kide-kopuruaren arabera.

**32. artikulua.** Gastu-konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lanekoak eta Osasunekoak, dagozkien eskumenen esparruan, beka eta diru laguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializatorako, hezkuntza bereziko, Foru Komunitateko elkarrizketarako laguntzaileendako egitaraurako, eta Nafarroarendako interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu-konpromisoak hartuko dituzte, dauden ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta esandako konpromisoek gainditzen ez badituzte xede horretarako aurreko ekitaldian aipatzen diren zenbatekoak. Gastu-konpromiso berbera, muga horiexekin, hartzen ahal du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, enpresen lehiakortasunerako laguntzak –maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak–; eskualdez gaindiko elkarlan proiektuetarako diru laguntzak emateko eta Estatuak transferitutako "Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak" programetako laguntzak –Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko abuztuaren 3ko Aginduan arautuak– emateko, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, eskola garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzeko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzaren alorreko prestakuntza jardueretarako laguntzak eman ahal izanen ditu, horretarako etorkizuneko ekitaldien kargura konpromisoak hartuz, aurreko ekitaldian helburu horrekin kontsignaturiko kopuruak gainditzen ez dituztenean, betiere.

Jarraibidetzat harturik oinarrizko errenta arautzen duen 120/1999 Foru Dekretua eta 242/2000 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira langileen laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotze-tasa sustatzeko neurri gisa onetsi diren zuzeneko diru laguntzak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak konpromisoak hartzen ahalko ditu, etorkizuneko ekitaldien kargura, betiere legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

2. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahal du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu-konpromisoetarako, Nafarroako Ogasun

Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago, Europako Batasuna finantzakidea den eta hiru urtetik goitiko plangintza izan behar duten plan, egitarau eta ekimenei aurre egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanzen ditu, garapenerako lankidetzaproiektuak finantzatzeko, proiektuok martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretuan xedatutako arabera diruz lagunduak badira, eta proiektuen bideragarritasunak ezinbesteko badu ekitaldiaz gaindiko eta, gehienez ere, hiru urterako plangintza.

4. 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, abenduaren 26ko 8/1998 Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duen epea gaindituta, epea zazpi urtetaraino luzatuz, errepi-deak zaintzeko kontratuetan.

5. Nafarroako Gobernuak behar den ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartu ahal izanzen ditu, garraio-zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

6. 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera eta obrak amaitzen diren urtera bitarte, Nafarroako Gobernuak datozen ekitaldietara ere luzatzen diren gastuen konpromisoak hartzen ahalko ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak onartzen duenaz gainetik, Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea burutzeko sinatu zuten lankidetz hitzarmena aplikatzearen ondorioz eginen diren kontratuen finantzaketan parte hartzeko.

7. Toki Administrazioiko Departamentuak diru laguntza arruntak ematen ahalko dizkie toki-entitateei, kudeaketa ekonomiko finantzariarako nahiz administrazioaren berregituraketarako, gastu konpromisoak hartuz dagokionaren hurrengo hiru ekitaldietarako. Gastu konpromiso horiek ezin izanzen dituzte gaintitu Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako finkatzen dituen mugak.

**33. artikulua.** Europako Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, ekitaldian zehar Europako Batasunak kofinantziatutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europako Batzardeak hasierako

dokumentuan onetsitakoari edo ondoren Jarraipen Batzardeek edo Europako Batzardeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastu-egoeretan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

**34. artikulua.** Itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 49. artikulua bigarren eta hirugarren idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru-kopurua hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanzen da 2001. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, irakaskuntza itunduko sektorearekin adostu ondoren, hamargarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta artikulua honetako laugarren eta bosgarren idatz-zatiak aldatzeko –horretarako muga izanzen dira “Irakaskuntza pribaturako diru laguntzak” izeneko proiektuan foru lege honek onetsitako aurrekontu-kredituak– eta ordainsarrietan egin beharreko igoerak, ituntzearen xede den hezkuntza maila bakoitzean indarra duen ikasketa plana irakasteko behar diren irakasle/unitate itundua erlazioa, zuzendaritza karguetako osagarriak eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea erraztuko beste edozein alderdi ere zehazteko.

Langile irakasleen ordainsariei buruzko aurreikuspenek, hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoak barne, 2001eko urtarrilaren 1etik hasita hartuko dute indarra, Irakaskuntza Pribatuaren Talde Hitzarmenak onesten diren datak horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espreski horrela eskatzen dutenean, sindikatuak entzun ondoren, kasuan kasuko Hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketok 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina izanzen dute indarra.

“Beste gastu batzuetarako” eta, hala balitz, langile osagarrietarako moduluko osagaiak –hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoak– 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanzen dituzte ondorioak.

Langile irakasleen ordainsarrietarako ezarri diru-kopuruak, gizarte kargak barne, Administrazioak zuzenean ordainduko ditu, ordainketa delegatuaren bidez. Ikastetxeko irakasle eta titullarraren arteko lan harremana galarazi gabe.

“Beste gastu batzuetarako” diru-kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie eta horiek ikasturtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorrak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Egun, Nafarroan irakasten ez direnez lanbide heziketa berariazkoaren titulu guztiak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2001/2002 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta zortzigarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa zikloetako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatu ahal izanen ditu; aldaketa horiek 2001/2002 ikasturtearen hasieran izanen dituzte ondorioak, haien ezarpena zein den ikusita.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, goi mailako edo maila ertaineko Heziketa zikloak eta Gizarte Bermeko Programak ezarri dituzten ikastetxeei Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 3e) hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientabideko zerbitzu espezializatueterako finantzaketa emanen zaie. Finantzaketa hori honako proportzio honetan emanen da: eginkizun horietarako profesionalaren lanaldi oso bat aipatu hezkuntza mailetako itundutako 25 unitate bakoitzeko. Beraz, itunduriko zentroek eskubidea izanen dute aipaturiko profesionalaren lanaldiaren finantzaketa eskuratzeko, itunduta dituzten aipatu mailetako unitateen kopuruaren arabera.

4. Ikasleengandik hartu beharreko kopurua, bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloko derrigorrezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarriaren kontzeptupekoa, bai eskusiboki arauturiko irakaskuntza kontzeptupekoa ere, 3.904 pezeta ikasle/hilabetekoa da –hamar hilabetetan zehar–, 2001eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte horretako irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz zentroek lorturiko finantzaketa modulu ekonomiko “bestelako gastuak” atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, Administrazioak “bestelako gastuak” idatz-zatiko guztizko kopurua erdiesteraino falta den dirua baizik ez du ordainduko.

5. Goi mailako heziketa zikloetako hitzarmen berezia partziala izanen da; beraz, derrigorrezkoa ez den mailaren irakaskuntzarako izenpeturiko banakako itun partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa ikasleengandik hartu beharreko kopurua, eskusiboki arauturiko irakaskuntza kontzeptupean, hau izanen da, 6.370 pezeta ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2001. urteko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2001. urteko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, lan zentroetako Lanbide Heziketa baizik ez duen ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleak salbu. Hauek 5.523 pezeta ikasle eta hileko ordainduko dute, lan zentroetako Lanbide Heziketak irauten dituen hiru hiletan.

Goi mailako heziketa zikloetara sartu ahal izateko prestakuntza ikastarorako itun berezia partziala izanen da; izan ere, goi mailako heziketa zikloetara sartzeko derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den prestakuntza ikastarorako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funtsetatik datozen finantzaketa osagarriaren kontzeptuan ikasleek jasoko duten kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 4.519 pezeta izanen da eta hamar hilabetez emanen da, 2001eko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era eta irailaren 1etik abenduaren 31ra.

Ikasleei kopuru horiek kobratzearen ondorioz ikastetxeek lorturiko finantzaketa modulu ekonomiko “bestelako gastuak” atalari aurre egiteko erabiliko da; beraz, Administrazioak “bestelako gastuak” idatz-zatiko guztizko kopurua erdiesteraino falta den dirua baizik ez du ordainduko.

6. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta derrigorrezko hezkuntzetan hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten edo sozialki kaltetutako gutxiengo etniko zein kulturaletako partaideak diren ikasleak dituzten itunduriko ikastetxeek, gainera, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: laguntza-irakasleak, logopedia-zerbitzuak eta zaindariak eta pertsonal osagarria.

Baliabide horiek esleituko dira Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsitako deialdi publiko egin ondoren, beharrezkoak diren txosten teknikoei jarraituz.

**35. artikulua.** Oteiza Fundazioaren Museo Etxea.

“Oteiza Fundazioaren Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak” izeneko kontusailari, aipatu Fundazioarekin zerikusirik duen edozein gastu aplikatzen ahal zaio.

**36. artikulua.** Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF).

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezko diren aurrekontu-sailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere.

Finantzaketa, betiere, hurrengo kontusailaren kargura eginen da: 11610-6092-1341; proiektua, 16003; izena, "Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF)".

**37. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkari-tza.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkari-tzaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak, arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahalko ditu eta Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren aurreko baimena beharko du milioi bat pezeta baino gehiago direnentzako.

**38. artikulua.** Ikerketa-proiektuak

Osasun Departamentuak sustaturiko Osasun Zientzien arloko ikerketa-proiektuek horren inbertsio propietzat joko dira, eta ez zaie aplikatuko diru laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen artetik hautatuak izanen dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

**39. artikulua.** Zerbitzuen funtzionamendu normalerako garrantzi txikikoak diren gastuak.

Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek, idazkari teknikoek eta zerbitzu-zuzendariak, kasuan kasuko administrazio-unitatearen funtzionamendurako beharrezko gertatzen diren gastuak baimendu ahal izanen dituzte, betiere, aurrekontuetan kontsignazioa izanik, horien zenbatekoa ez bada 1.000.000 pezeta baino altuagoa –zuzendari nagusi eta idazkari teknikoaren kasuan–, eta 500.000 pezeta baino altuagoa –zerbitzu-zuzendarien kasuan–. Ulertuko da gaikuntza hori funtzionamendu horretarako beharrezkoak diren horniduretarako ere balioko duela, salbu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, modu zen-

tralizatuan, atenditzen dituenetarako eta, urriaren 19ko 307/1998 Foru Dekretuaz baliatuz, eskumena transferitua duten kontratuetarako.

**40. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko garrantzi txikiko gastuak.

Osasun etxeetako zuzendariak hainbesteko kopuru bat edukiko dute, hilean, beren osasun etxeetako gastu ustekabeko, premiazko edo zehatzei aurre egin ahal izateko, Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariak ezarriko du hainbesteko horrek zenbat jotzen duen.

**41. artikulua.** Ondare eskualdaketak.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari jabari pribatuko ondasunak, eta bereziki Nafarroako Gobernuarenak diren akzioak, Foru Komunitateko sozietate publikoei edo kapitalean Foru Komunitatearen parte hartzea duten merkataritza sozietateei eman diezaien aipatu aginduan ezarritako gehieneko kopurutik gora.

**42. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenean izanen ditu ondorioak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 41. artikulua aldaketa honek:

"41. artikulua. 1. Urte anitzeko gastuak baimendu eta egiteko beharrezkoa izanen da aurrekontuek ekitaldi bakoitzean kreditua baimentzea.

2. Nafarroako Gobernuak kasu hauetan eman ahal izanen du baimena ekitaldi bati baino gehiagori egotzi beharreko gastu konpromisoak hartzeko:

2.1. Gastuaren betetze partziala konpromisoa hartzen den ekitaldian gertatzen denean.

2.2. Gastua, osorik, konpromisoa baimendu edo hartu ondorengo ekitaldietan betetzen denean. Konpromisorako beharrezkoa izanen da hurrengo ekitaldiko aurrekontuan kreditua egotea.

Urte anitzeko gastuen konpromisoak eragiketa hauetarako baizik ez dira egin ahalko:

a) Inbertsioak eta kapital transferentziak.

b) Ondasun eta zerbitzuetako gastuak, urtebetetarako, haien kontratazioa, Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako modalitateetan, ezin bada arautu edo ekonomiaren kontrakoa bada.

c) Ondasun higiezinaren errentamendua.

- d) Zorpetzearen finantza-kargak.
- e) Finantza aktiboak.

3. Aurreko zenbakiko a), b) eta e) letretan adierazitako gastuak ez dira lau ekitalditari baino gehiagori aplikatu ahal izanen. Kasu horietan, ekitaldi bakoitzari egotzi beharreko gastua Nafarroako Gobernuak finkatuko du, ondotik aipatzen diren mugen barrenean. Muga horiek, Nafarroako Parlamentuak hasiera batetan onetsiriko gastuen egoeraren kapitulu ekonomikoetako bakoitzaren zenbatekoari aplikatuko zaizkio.

Hurrengo ekitaldian, % 70.

Bigarren ekitaldian, % 60.

Hirugarren ekitaldian, % 50.

Hurrengo ekitaldian kreditua izateak baldintzaturiko gastuen konpromisoak aipatutako portzentajeetan kontatu ahalko dira, betiere konpromisoak behin betikoak badira eta gastua ekitaldi biri baino gehiagori egotzi behar bazaie.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakotik kanpo daude aurreragoko ekitaldien konturako gastuen konpromisoak, horiek betetzeko baimena foru lege mailako xedapenek espreski emana baldin bada; konpromiso horiek aipatu xedapenetan dauden manuek zuzenduko dituzte.

Aurrekoarekin ere, dagozkion foru legeek kontrarik ezartzen ez badute, gastuen mugak edo ehunekoak artikuluko honen 3. puntuan aipatzen direnak izanen dira, dagokion ekitaldi bakoitzera-ko.

Era berean, foru legeek artikuluko honen 3. puntuan adierazitako urteko kopuruak aldatzen badituzte eta kasu honetan aplikatzekoak diren gastu mugak edo portzentajeak zehazten ez badituzte, laugarren ekitaldiari eta hurrengoek egotzi beharreko gastuak ez dira, osotara, hasierako aurrekontuaren gastuen egoerako kapitulu ekonomikoetako bakoitzaren zenbatekoaren % 30etik gorakoak izanen.

5. Aurreko 2. puntuan xedatutakoa gora behe-ra, kontseilariak baimena eman dezakete gastuen konpromiso hauetarako:

a) langileak aldi baterako kontratatuzeko gastuak eta, urte naturalaz besteko aldiak hartzearen ondorioz bi aurrekontu ekitalditan eragina duten urteroko diru laguntza arruntetatik heldu direnak.

b) Edozein motatako gastuak, zenbatekoa 15 milioi pezetakoa baino handiagoa ez bada, eta baimena jasotzen duten ekitaldiaren ondokoa baino lehen betetzen badira.

6. Gastuen tramitazioaren kudeaketa egokira-ko beharrezkoa izanez gero, espediente asko daudelako edo ongi azterturiko bestelako inguruabarrak direla eta, Departamentuek gastuen konpromisoak hartu ahal izanen dituzte dagokion ekitaldikoaren ondorengo aurrekontuen kargura, betiere konpromiso horiek gainditzen ez badituzte Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako ezar-tzen dituen mugak.

7. Artikulu honen aurreko artikuluek aipatzen dituzten konpromisoak, salbu eta langileen aldi baterako kontratuak, 5.a) puntukoak, irmo bihurtzean kontatu beharko dira.

## VI. TITULUA Kontratazioa

**43. artikulua.** Kontratazioaren arloko eskurantzak

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguruen Ataleko buruari ahalmena ematen zaio 5.000.000 pezeta baino aurrekontu altuagoa ez duten hornidura-kontratuak sinatzeko, edo 8.000.000 pezeta baino aurrekontu altuagoa ez dutenak, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratazio Buruzko Ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 18.2.c) artikuluan jasotzen diren kasuetan, betiere kontratazioa beste departamentu edo erakunde autonomo batzuetara eskualdatua izan ez bada.

Kontratazio eta Aseguruen Ataleko titularra ez baldin badago, gaixorik badago edo bere postua hutsik badago, eskumena Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendariak erabiliko du.

2. Kontratazio eta Aseguruen atalburuak bulego gaiez hornitzeko ahalmena eskuordetu ahal-ko du, ahalmena Hornidura Bulegoko buruari emanaz.

3. Aurreko idatz-zatian aipaturiko kontratu-ahalmenak esleituko dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratazio Buruzko Ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 12.1.a) artikuluko kontseilari-ri ematen dien eskumen orokorraren kalterik gabe. Kontseilariak edozein unetan kasuan kasuko kontratua beraiek sinatzea eskatu ahal izanen dute.

4. Garraio zerbitzuak kontratatuzeko eta garraio-jarduerak xede dituzten diru laguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zerbitzuak aldeko txos-tena eman beharko du aurretik, derrigorrez.



**44. artikulua.** Zenbait erakunde autonomotako hornidura kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte hornitzaileei eskaintzak eskatuz bi hilabete-tan behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

#### Xedapen gehigarriak

**Lehena.** 1. Alderatzuz gero abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak 6. artikuluan 2000. urterako aurreikusitako Kontsumo Prezioen Indizea eta Nafarroan 2000. urtean egiazki izaniko indizea, aldea ehuneko bikoia baino gehiagokoa bada, alde hori zuzenean aplikatuko da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langile jarduneko ordainsarrietan; kontsolidatu egingen da eta 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak.

2. Halaber, paga bakarra ordainduko da, kontsolidata ezina; hori kalkulatzeko, 2000. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri, betiere horien kopuruak aipatutako desbideraketaren ehunekoaren parekoak badira

3. Klase pasiboen pentsioei ere aplikatuko zaie aurreko bi puntuetan ezarritakoa, eta eguneratzeko eskubidea izanen dute.

**Bigarrena.** 1. Alderatzuz gero lege honen 6. artikuluan ezarritako Kontsumo Prezioen Indizea eta Nafarroan 2001 urtean egiazki izaniko indizea, aldea ehuneko bikoia baino gehiagokoa bada, alde hori zuzenean aplikatuko da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langile jarduneko ordainsarrietan; kontsolidatu egingen da eta 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak.

2. Halaber, paga bakarra ordainduko da, kontsolidata ezina; hori kalkulatzeko, 2000. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri, betiere horien kopuruak aipatutako desbideraketaren ehunekoaren parekoak badira

3. Klase pasiboen pentsioei ere aplikatuko zaie aurreko bi puntuetan ezarritakoa, eta eguneratzeko eskubidea izanen dute.

**Hirugarrena.**- Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoren (LOGSE) bigarren xedapen gehigarriaren arabera, baldin eta haur eta lehen hezkuntzako erlijio irakasleak aldi baterako ari badira, lan kon-

tratuz, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetan, horien ordainsariak gora egingen dute 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera; irakasle horien soldaten eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak maisu-maistra lanpostuetan dituen administrazio kontratudun irakasleen soldaten artean dagoen proportzioa, ikasgai horren ardura duten eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren menpekoak diren irakasleen ordainsarien eta Ministerioak hezkuntza maila berean dituen bitarteko irakasleen ordainsarien arteko proportzioa bera izateko behar adinakoa izanen da igoera hori.

**Laugarrena.** 1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Nafarroako Foru Komunitateko plantillan sar ditzan Tafallako Zerbitzu Terapeutikoko funtzionario eta lan-kontratudun langile finkoak.

2. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio kredituak sor ditzan behar diren kontusailetan, langile horiek Nafarroako Foru Komunitateko plantillan sartzea finantzatzeko.

**Bosgarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Administrazio Departamentuak txostena eman ondotik, udal eta kontzejuei ondokoak eman ahal izan diezazkien:

a) Tributuetan parte-hartze funtsean ohiko transferentziak egiteari dagozkion kontu aurrerakinak, hiruhileko baten zenbatekoaren kontura, ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoan itzuli beharrekoak.

Toki entitatearen aurrezki garbiaren, defizitaren eta zor mailaren araberako egoera finantzario eta ekonomikoa dela eta, ohiz kanpoko neurriak komenigarritzat joko balira, konturako aurrerakina, gehenez ere, bi hilabeteren zenbatekoan ematea egonen litzateke.

b) Banaketa kontuan jasota egon eta epemuga iragan duten zorren ordainketa geroratzea.

Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan atezu larria gertatuz gero emanen dira; betiere, entitate eskatzaileak katastro berriak aplikaturik edo landa eta hiri katastroaren aberastasuna gaurkotzeari buruzko hitzarmenak sinatuta edukiz gero.

Ekonomi eta Ogasun kontseilariak, entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioa nolakoa den ikusita erabakiko du zein korritu tasa aplikatu.

**Seigarrena.-** 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plana onetsi zuen uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legearen 6. artikulua 1. idatz-zatia aldatzea; honela geldituko da:

“Toki azpiegituren hiru urtetarako planarentzako aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentziatzen direnak hain zuzen, urte bat baino gehiagokoak izanen dira; hona:

	2001	2002	2003	GUZTIRA (milakotan)
<b>A) PLAN ZUZENDARIAK</b>				
AZTERLANAK	10.100	10.100	10.100	30.300
GOI PRESIOKO UR HORNIDURA	1.177.660	1.177.660	1.177.660	3.532.980
IBAIK ARAZTU ETA SANEATZEA	707.000	707.000	707.000	2.121.000
<b>HIRI HONDAKINAK:</b>				
TRATAMENDUA	126.250	126.250	465.408	717.908
BILKETA	186.850	186.850	140.895	514.595
IRUÑERRIKO MK.AREKIKO HITZARMENA	579.600	980.320	355.730	1.915.650
BERARIAZKO HONDAKINAK	0	0	303.606	303.606
Milakoak, guztira, PLAN ZUZENTZAILEETAN	2.787.460	3.188.180	3.160.399	9.136.039
<b>B) TOKI PROGRAMAZIOKO INBERTSIOAK</b>				
UR HORNIDURA, PLAN ZUZENTZAILEETAN SARTU GABEKOA	15.150	15.150	15.150	45.450
UR HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO SARE LOKALAK	1.313.000	1.313.000	1.313.000	3.939.000
ELEKTRIFIKAZIOAK	25.250	25.250	25.250	75.750
HERRI ARGITERIA	227.250	227.250	227.250	681.750
ZOLADURAK	883.750	883.750	883.750	2.651.250
UDAL ERAIKINAK	202.000	202.000	202.000	606.000
KANPOSANTUA	101.000	101.000	101.000	303.000
TOKI BIDEAK	101.000	101.000	101.000	303.000
Milakoak, guztira, TOKI PROGRAMAZIOAN	2.868.400	2.868.400	2.868.400	8.605.200
<b>C) TOKI GARAPENA</b>				
TOKI GARAPENA	40.400	40.400	40.400	121.200
<b>D) 4050 PLAN GEHIGARRIA</b>				
	1	1	1	3
<b>E) BERARIAZKO PLANA</b>				
	1.000.000	1.000.000	1.000.000	3.000.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.696.261</b>	<b>7.096.981</b>	<b>7.069.200</b>	<b>20.862.442</b>

**Zazpigarrena.-** Hauek dira 2001ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Etxeko isurkinak: 29 pezeta/metro kubikoko.

b) Etxekoak ez diren isurkinak: etxeko isurkinen tarifaren gainean 100eko 25 gehiago, eta, behar balitz, karga kutsatzailearen indizea gehitu eginen da.

Arazketarako instalazioak kofinantzatzen direnean, Toki Administrazio Departamentuak koefiziente zuzentzaile bat jarri ahal izanen du tarifan; horren aplikazioa hitzarmenez eginen da.

Arazketa biologikorako instalazio pribatuak jatorri dituzten lohiei, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegieta, tari-

fa bat aplikatuko zaie tratatuak izateagatik; hain zuzen ere, 862 pezeta metro kubikoko.

Aurreko zergei Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehituko zaie.

**Zortzigarrena.-** Hona hemen zein izanen den 2001. urtean etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulu ponderatua:

– 01 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat: 17.504 pezeta/m<sup>2</sup> erabilgarri.

– 02 eremu geografikoari atxikiriko udalentsat: 109.132 pezeta/m<sup>2</sup> erabilgarri.

2001. urtean, etxebizitza alorreko jarduketa babesgarrietan aplikatuko den modulu ponderatu gabekoa honakoa izanen da:

– 01 eremu geografikoarentzat: 112.444 peze-  
ta/m<sup>2</sup> erabilgarri.

– 02 eremu geografikoarentzat: 104.433 peze-  
ta/m<sup>2</sup> erabilgarri.

2001. urtean, salneurri tasatuko etxebizitzeta-  
ko metro karratu erabilgarriaren gehieneko sal-  
menta-prezioa 158.630 pezeta izanen da 01  
eremu geografikoko udaletan, eta 47.328 pezeta  
02 eremu geografikokoetan.

**Bederatzigarrena.-** 1.Eremu ez euskalduneko  
ikastolak, baimenik ez baina eskolak ematen ari  
direnak alegia, 2001 ekitaldian, hurrengo araubide  
berezi eta aldi baterakoa izanen dute diru lagun-  
tzetarako:

a) 2001eko abuztuaren 31 arte, 2000/2001  
ikasturtean zeuden gelei emanen zaizkie diru  
laguntzak, nahiz eta, unitateko, orokorrean ezarri-  
riko ikasle kopururik ez izan.

b) 2001eko irailaren 1etik aurrera, eta egungo  
egoera legedi indardunera egokitu artean, modu-  
luari dagokion diru-kopuru osoa hurrengo unitate-  
ek soilik jasoko dute: legedi indardunak  
2001/2002 ikasturterako unitateko ezarri duen  
gutxiengo ikasle kopurua dutenak.

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako  
bigarren zikloko unitateei dagokienez, ikasleko  
emanen den diru laguntza kalkulatzeko, modulu  
ekonomikoa zati hemezortzi eginen da.

2. Diru laguntza horiek ordainduko dira Hez-  
kuntza eta Kultura Departamentuko Hizkuntza  
Politikarako hurrengo programan: "Hizkuntz pro-  
gramazio, ikerketa eta garapena". Diru laguntza  
horien zenbatekoa. 34. artikulua hezkuntza maila  
bakoitzerako ezarritako moduluaren arabera  
eta foru lege honen hamargarren xedapen gehi-  
garrian adierazitakoa izanen da.

3.- Diru laguntza horiek jasotzeko, unitate  
bakoitzeko ikasleen zerrenda eman beharko dute  
ikastolen titularrek .

**Hamargarrena.-** Hezkuntza maila nahiz moda-  
litate ezberdinetan itundutako ikastetxeen eskola  
unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko  
zenbatekoak, II eranskinean ematen dira, kon-  
tzeptu bakoitza moduluaren ehuneko zenbat den  
adierazita. Zenbateko horiek honela daude bana-  
tuta: "Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kar-  
gak barne", eta itundutako unitate bakoitzeko ira-  
kasle titular eta atxikiaren arteko proportzioa, "Gastu  
aldakorrak" eta "Bestelako gastuak".

**Hamaigarrena.-** Maisutza Diplomaturako  
ikasketetako praktikak irakasten diren ikastetxee-

tako maisu-maistrek arauz zehaztuko diren kalte-  
ordainak jasoko dituzte.

**Hamabigarrena.-** Udaleko osasun arloko fun-  
tzionario titularrak, foru lege honek indarra hartzen  
duenean lanpostuaren jabe badira, aukeran izan-  
en dute Foru Komunitateko funtzionario izatera  
pasatzea, tokiko osasun zerbitzuetara. Horretara-  
ko, eskabide idatzia aurkeztu beharko dute Foru  
Komunitateko Erregistro Orokorrean, foru lege  
hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta,  
hortik kontatzen hasita, 30 eguneko epean.

**Hamahirugarrena.-** Nafarroako Gobernuak,  
bere ekimenez edo interesa duen udal nahiz kon-  
tzejua eskaturik, elkarren ondoko osasun eskual-  
de oinarrikoetan sarturiko barruti eta atalen atxi-  
kipena aldatzen ahalko du, baldin eta  
komenigarria bada, osasun laguntza emateko  
arrazoiengatik.

Dena dela, aldaketako espedienteko urratse-  
tan nahitaezko entzunaldia sartu beharko da,  
eskualde oinarrikoetako ordezkari organoaren-  
a, halakorik bada, eta lurralde aldaketak ukituriko  
udal nahiz kontzejua.

**Hamalagarrena.-** Nafarroako Gobernuaren  
zerbitzupeko telekomunikazio sistemen elkar ego-  
kitzea eta integrazioa bermatzeko asmoz, siste-  
men horniduraren eta telekomunikazio zerbitzuen  
kontratazioek eta frekuentzien eskariek hauxe  
beharko dute, betiere: aurretik emandako bidera-  
garritasun txosten aldekoa, Garraio eta Telekomu-  
nikazio Zuzendaritza Nagusiak emandakoa.

**Hamabosgarrena.-** Otsailaren 16ko 54/1998  
Legegintzako Foru Dekretuz onetsi zen Nekazari-  
tzako Finantzaketari buruzko lege mailako xeda-  
penen Testu Bategina aldatu egin da. Hona:

1. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik  
indarrrik gabe uzten dira 3. artikuluko c) letra eta 4.  
artikuluko 1. zenbakiko b) letra.

2. Hamalagarren artikuluko bigarren lerroka-  
da indarrrik gabe uzten da 2001ko aurrekontua  
betetzeko.

3. 2001. urterako 21. artikulua aldatu da.  
Honela geratuko da idatzita:

"16. artikuluko a) letran aipatzen diren lagun-  
tzak gauzatzeko, aseguruaren kostua ordaintzeko  
diru-laguntza emanen da, Estatuko Nekazaritza-  
Aseguruetarako Entitateak xede bererako eman-  
dakoa kontuan hartuz; diru-laguntza bien batuketa  
ezin izanen da aseguruaren kostuaren 100eko  
80tik gorakoa izan.

**Hamaseigarrena.-** FEOGAko Garantia ataleko  
kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez, Euro-

pako Kontseiluaren 729/70 zenbakiko Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europako Batzordearen 1995eko uztailaren 7ko 1663/95 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko ditu, FEOGAko aipaturiko Garantia ataletik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatzeko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Organismo Ordaintzailearen funtzioak betetzen laguntzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuak eraturiko sozietate publikoen esku utzi ahal izanen ditu eginbehar horiek, haiek gauza ditzaten.

**Hamazazpigarrena.-** Ahalmena ematen zaio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari behar dituen lankidetzak hitzarmenak egiteko "Navarra de Suelo Industrial S.A." (NASUINSA) sozietate publikoarekin; hain zuzen ere, hitzarmen horien helburua da industri azpiegituren eskasiak betetzea, betiere 2001. urterako Aurrekontu Orokorretan horretarako jarri diren kontusailen kargura.

**Hemezortzigarrena.-** Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Nafarroako Gizarte Ongizate Departamentuak ordaindutako aldizkako prestazioen eta pentsioen kontzeptuan jaso behar ez baino jaso diren zenbatekoen itzulketa zatituko du, erakunde autonomo horrek eskatuta; horregatik ez korriturik ez bermerik ez du eskatuko.

**Hemeretzigarrena.-** Transferentzien Batzarrean Nafarroako Gobernuak duen ordezkarietan tokia izanen dituzte propio eskatu duten edo eskatuko duten Parlamentuko talde guztiak. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak bere adostasuna emateko Estatuko zerbitzuen transferentzia bati, betiere beharrezkoa izanen da Parlamentuko taldeetako ordezkari gehienek aldeko botoa; ondorio horietarako, ordezkari horietako bakoitzak bere taldean zenbat parlamentario dauden, horren arabera boto kopurua izanen du.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek 2001eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

**I. ERANSKINA**

2001.- Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoko funtzionarioak, Bigarren Irakaskuntzako Katedradun izaera dutenak; Musika eta Eszena Arteetako Katedradunen Kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu Irakasleen kidegoko funtzionarioak, Arte Plastiko eta Diseinu katedradun izaera dutenak

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	1.157.067	1.169.852	1.169.852	1.169.852	1.179.442	1.179.442	1.179.442	1.190.629
ADINA 63 AÑOS	1.192.227	1.192.227	1.192.227	1.203.412	1.203.412	1.203.412	1.214.600	1.256.079
ADINA 62 AÑOS	1.214.600	1.214.600	1.227.387	1.227.387	1.272.135	1.356.838	1.457.521	1.575.784
ADINA 61 AÑOS	1.238.574	1.248.162	1.304.096	1.395.192	1.502.269	1.628.525	1.773.955	1.933.772
ADINA 60 AÑOS	1.299.304	1.390.398	1.495.877	1.620.532	1.765.967	1.936.969	2.127.149	2.127.149

2001.- Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoko, Musika eta Eszena Arteetako irakasleen kidegoko edo Arte Plastiko eta Diseinu irakasleen kidegoko funtzionarioak.

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	1.192.397	1.205.573	1.205.573	1.205.573	1.215.454	1.215.454	1.215.454	1.226.985
ADINA 63 URTE	1.228.631	1.228.631	1.228.631	1.240.159	1.240.159	1.240.159	1.251.689	1.251.689
ADINA 62 URTE	1.251.689	1.251.689	1.264.863	1.264.863	1.264.863	1.278.038	1.325.800	1.418.031
ADINA 61 URTE	1.276.391	1.289.568	1.289.568	1.289.568	1.362.033	1.459.205	1.572.845	1.706.248
ADINA 60 URTE	1.289.568	1.289.568	1.357.094	1.452.617	1.566.256	1.698.014	1.852.827	2.035.640

2001.- Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko edo Arte plastiko eta Diseinuko Lantegi maisu-maistren kidegoko funtzionarioak

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	977.744	986.306	986.306	986.306	993.444	993.444	993.444	1.002.008
ADINA 63 URTE	1.003.437	1.003.437	1.003.437	1.010.574	1.010.574	1.010.574	1.020.564	1.020.564
ADINA 62 URTE	1.020.564	1.020.564	1.029.129	1.029.129	1.029.129	1.083.369	1.149.028	1.228.959
ADINA 61 URTE	1.037.693	1.046.257	1.046.257	1.107.633	1.180.430	1.264.644	1.363.132	1.478.749
ADINA 60 URTE	1.046.257	1.104.780	1.176.149	1.258.934	1.357.422	1.471.610	1.605.785	1.764.221

2001.- Maisu-Maistren kidegoko funtzionarioak

ZERBITZU URTEAK	28	29	30	31	32	33	34	35 EDO GEHI.
ADINA 64 URTE	994.543	1.002.228	1.002.228	1.002.228	1.011.452	1.011.452	1.011.452	1.020.674
ADINA 63 URTE	1.080.624	1.080.624	1.080.624	1.088.309	1.088.309	1.088.309	1.099.069	1.099.069
ADINA 62 URTE	1.099.069	1.099.069	1.108.293	1.108.293	1.108.293	1.119.053	1.160.556	1.231.265
ADINA 61 URTE	1.117.515	1.126.738	1.126.738	1.126.738	1.186.687	1.263.546	1.352.700	1.458.764
ADINA 60 URTE	1.126.738	1.126.738	1.183.614	1.260.471	1.348.090	1.452.617	1.574.052	1.717.009

## II. ERANSKINA

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAKORRAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA							
HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA	1,12		4.854.149	75,46	641.359	9,97	936.980	14,57	6.432.488
LEHEN HEZKUNTZA	1,24		5.374.237	73,90	900.177	12,38	998.192	13,73	7.272.606
D.B.H., LEHEN ZIKLOA	1,52		6.587.774	74,57	1.047.716	11,86	1.198.468	13,57	8.833.958
D.B.H., BIGARREN ZIKLOA	1,59		7.871.196	77,00	996.057	9,74	1.355.679	13,26	10.222.932
D.B.H., CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA	0,68	0,6	6.336.561	73,44	935.593	10,84	1.355.679	15,71	8.627.833
D.B.H., CURRICULUM EGOKITUKO UNITATEA	0,88	0,6	6.995.861	75,62	899.446	9,72	1.355.679	14,65	9.250.986
BATXILLERGOA	1,52		7.524.666	75,46	1.091.239	10,94	1.355.679	13,60	9.971.584
LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA	1,44		7.128.631	69,71	1.081.282	10,57	2.016.417	19,72	10.226.330
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA	1,44		8.712.771	76,60	1.305.918	11,48	1.355.679	11,92	11.374.368

HEZKUNTZA MAILA	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU AL-DAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	LANGILE OSAG.	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
	TITULARRA	AGREGATUA									
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA PSIKIKOAK	1		4.334.062	45,35	505.552	5,29	998.192	10,44	3.718.925	38,91	9.556.731
OINARRIZKO HEZKUNTZA BEREZIA AUTISTAK	1		4.334.062	49,30	505.552	5,75	998.192	11,35	2.952.995	33,59	8.790.801
LANBIDE HEZIKETA BEREZIKO HASTAPEN PROGRAMAK	1	1	8.733.188	52,87	1.005.836	6,09	1.355.679	8,21	5.425.067	32,84	16.519.770
BIZITZA HELDURAKO PRESTATZEKO PROGRAMAK	1		4.357.485	49,32	526.018	5,95	998.192	11,30	2.952.995	33,42	8.834.690

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA	1º	0,52	0,92	6.621.425	70,11	895.716	9,48	1.927.615	20,41	9.444.756
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977
1) E.H.Z., ADMINISTRAZIO KUDEAKETA zatikako eskaintza bi kurtsoetan antolatuta	1º	0,36	0,32	3.189.878	66,53	448.015	9,34	1.156.569	24,12	4.794.462
	2º	0,6	0,24	4.026.054	70,57	576.471	10,1	1.102.441	19,32	5.704.966
2) E.H.Z., ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK	1º	0,4	1,2	7.259.128	72,79	951.555	9,54	1.761.916	17,67	9.972.599
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977
3) E.H.Z. SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA	1º	0,48	1,24	7.831.128	65,75	1.027.726	8,63	3.052.148	25,62	11.911.002
	2º	0,84	0,56	6.621.879	62,39	940.248	8,86	3.052.148	28,76	10.614.275
4) E.H.Z., ARTE GRAFIKO-ETAKO AURREINPRIMAK.	1º	0,4	1,12	6.907.197	66,19	911.533	8,73	2.616.916	25,08	10.435.646
	2º	0,68	0,68	6.357.703	64,46	887.964	9	2.616.916	26,53	9.862.583
5) E.H.Z., AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA	1º	0,76	0,92	7.809.530	67,91	1.064.191	9,25	2.626.121	22,84	11.499.842
	2º	0,52	0,92	6.621.424	65,28	895.715	8,83	2.626.121	25,89	10.143.260
6) E.H.Z., FARMAZIA	1º	0,36	1,08	6.533.215	71,55	863.441	9,46	1.734.301	18,99	9.130.957
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977
7) E.H.Z., EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTRONIKOAK	1º	0,64	0,96	7.391.442	66,98	999.963	9,06	2.644.531	23,96	11.035.936
	2º	0,6	0,76	6.313.600	64,23	871.828	8,87	2.644.531	26,9	9.829.959
8) E.H.Z., MEKANIZAZIOA	1º	0,56	1,2	8.051.198	68,39	1.063.874	9,04	2.658.033	22,58	11.773.105
	2º	0,6	0,8	6.489.565	64,64	891.840	8,88	2.658.033	26,48	10.039.438
9) E.H.Z., MERKATARITZA	1º	0,96	0,64	7.567.863	72,54	1.064.510	10,2	1.800.579	17,26	10.432.952
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977



## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK	IKAST.	IRAKASLEEN RATIOA		LANGILEEN SOLDATAK	MODULUA %	GASTU ALDAGARRIAK	MODULUA %	BESTELAKO GASTUAK	MODULUA %	MODULUA GUZTIRA
		TITULARRA	AGREGATUA							
1) G.H.Z., NAZIOARTEKO MERKATARITZA	1º	1,08	0,32	6.754.194	71,9	988.655	10,52	1.651.451	17,58	9.394.300
	2º	1,04	0,2	6.028.280	70,26	900.544	10,5	1.651.451	19,25	8.580.275
2) G.H.Z., PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA	1º	1,32	0,24	7.590.369	68,77	1.117.111	10,12	2.329.706	21,11	11.037.186
	2º	0,68	0,72	6.533.668	66,87	907.976	9,29	2.329.706	23,84	9.771.350
3) G.H.Z., ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK	1º	0,8	0,48	6.071.932	69,86	872.146	10,03	1.748.109	20,11	8.692.187
	2º	1,16	0,12	6.270.403	69,96	944.759	10,54	1.748.109	19,5	8.963.271
4) G.H.Z., OSASUN DOKUMENTAZIOA	1º	0,96	0,48	6.864.003	69,74	984.465	10	1.993.893	20,26	9.842.361
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977
5) G.H.Z., HAUR HEZKUNTZA	1º	0,64	0,88	7.039.512	72,9	959.942	9,94	1.656.975	17,16	9.656.429
	2º	1	0	4.950.438	70,75	772.406	11,04	1.274.030	18,21	6.996.874
6) G.H.Z., MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA	1º	0,96	0,64	7.567.863	73	1.064.510	10,27	1.734.301	16,73	10.366.674
	2º	0,24	0	1.188.105	70,39	168.477	9,98	331.395	19,63	1.687.977
7) G.H.Z., INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA	1º	1,2	0,52	8.228.073	73,33	1.172.951	10,45	1.819.911	16,22	11.220.935
	2º	0,96	0,44	6.688.037	70,61	964.451	10,18	1.819.911	19,21	9.472.399
8) G.H.Z., ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK	1º	0,96	0,8	8.271.723	72,01	1.144.556	9,96	2.070.114	18,02	11.486.393
	2º	1,08	0,32	6.754.194	68,83	988.655	10,07	2.070.114	21,1	9.812.963
9) G.H.Z., MEKANIZAZKO BIDEZKO PRODUKZIOA	1º	0,6	1	7.369.389	68,69	991.898	9,25	2.366.529	22,06	10.727.816
	2º	1,2	0,2	6.820.351	66,87	1.012.863	9,93	2.366.529	23,2	10.199.743
10) G.H.Z., GARRAIOAREN KUDEAKETA	1º	0,72	0,64	6.379.758	71,46	896.032	10,04	1.651.451	18,5	8.927.241
	2º	1,24	0	6.138.543	70,31	940.884	10,78	1.651.451	18,92	8.730.878
11) G.H.Z., INFORMATIKA APLIKAZIOEN GARAPENA	1º	1,16	0,48	7.854.090	73,12	1.124.861	10,47	1.761.916	16,4	10.740.867
	2º	0,96	0,36	6.336.107	70,23	924.430	10,25	1.761.916	19,53	9.022.453
12) G.H.Z., ANATOMIA PATOLOGIKOA ETA ZITOLOGIA	1º	0,88	0,68	7.347.792	71,05	1.028.362	9,94	1.965.173	19	10.341.327
	2º	1,08	0	5.346.474	65,68	828.565	10,18	1.965.173	24,14	8.140.212
13) G.H.Z., ARTE GRAFIKOETAKO PRODUKZIOA	1º	0,36	1,24	7.237.075	67,09	943.488	8,75	2.605.869	24,16	10.786.432
	2º	0,96	0,44	6.688.037	65,2	964.451	9,4	2.605.869	25,4	10.258.357
14) G.H.Z., PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA	1º	0,76	0,8	7.281.635	68,79	1.004.157	9,49	2.300.249	21,73	10.586.041
	2º	1,4	0	6.930.613	67,39	1.053.201	10,24	2.300.249	22,37	10.284.063

---

**H Saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 10ean egindako bileran, Eledunen Batzarra enzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko hurrengo arauak onartzea:

1go. 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege Proiektua, Proiektua aurrerantzean, Nafarroako Gobernua-ren 2000ko azaroaren 10eko Erabakiz Biltzarrera bidalia izan dena eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2000ko azaroaren 10ean sartu dena, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari igorriko zaio proiektua, horrek izapida dezan.

2gn. Proiektua berehala argitaratuko da Biltzarreko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera huaxe xedatuko da: epe bat irekitzea, 2000ko azaroaren 27ko goizeko 10:00etan bukatuko dena, non Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek, euren kabuz, osoko zuzenketak aurkezten ahalko dizkieten proiektuari. Beste epe bat irekitzea, 2000ko abenduaren 4ko 12:00etan bukatuko dena, non Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek artikuluei eta kontabilitate-lerroei zuzenketak aurkezten ahalko dizkieten. Horiek guztiak Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari zuzendutako ziodun idatziaren bitartez aurkeztuko dira.

3gn. Zuzenketak izan ahalko dira:

a) Proiektu osoarekikoak, proiektua Foru Diputazioari itzultzeko proposatuz eta hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipioetan oinarritutako proiektua lantzeko agindua emanaz Foru Diputazioari.

Programa eta Ekonomi Korrelazioa izenekoa agertzen diren programen egituretako edozeinekikoak. Programen Egitura bat erabat aurkatzeko helburua duten zuzenketak, osoko zuzenketa bezala planteatu beharko dira.

b) Proiektuaren barruko edozein programa, proiektu zein gastu-kontzepturekikoak.

Aurrekontuen kontabilitate-lerrokako sailkapena jasotzen duen liburukian egingo da aipatu gastu-kategorien identifikazioa.

c) Proiektuaren edozein artukulurekikoak.

4gn. Kontzepturen baten gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea ekar dezaten zuzenketek Foru Diputazioaren aurreko onespina beharko dute biderapenerako onetsiak izateko.

Hala ere, aipatu onespina ez da derrigorrezkoa izaneren aurkeztutako zuzenketak gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea finantzatzeko proiektuan izendaturiko baliabideak zehazten baldin baditu.

Aipatu baliabideak izendatzeko modua aurreko xedapenean zehaztu dena izango da.

5gn. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko Lehendakariak Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariaren arteko lan-bilerarako deia egingen du; zuzendari nagusiekin eta egoki iritzitako teknikariek bertaratu daiteke aipatu Kontseilaria.

6gn. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak tramitera onartu ala ez erabakiko du eta Batzordeko Lehendakariak Parlamentuko Lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar diren Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko.

7gn. Artikuluei eta kontabilitate-lerroei zuzenketak aurkezteko epea bukatu ondoren, zuzenketak biderapenerako onesteari buruzko iritzia emango du Batzordeko Mahaiak; Foru Diputazioak, noski, gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea ekar dezaketenei buruzko txostena aurretik egin beharko du eta egun baliodun bateko epearen barruan bidali. Bilkura berean ekingo dio Batzordeko Mahaiak tramitera onetsitako gainera-

ko zuzenketak sailkatzeari eta Batzordekideei eta Biltzarreko Lehendakariari helaraziko dizkie.

8gn. Parlamentuko Lehendakariak Ekonomi eta Ogasun Batzordea biltzeko deia egin dezake, hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin, dagokion eztabaidari ekiteko.

9gn. Osoko Bilkuran, osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 88 eta 130. artikuluek ezarritakoaren arabera egingo da.

10gn. Osoarekiko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Foru Diputazioari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada, Biltzarreko Lehendakariak finkatu toki, egun eta orduan bilduko da Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea, arau hauen 8. puntuaren araberrako deialdian.

11gn. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikulua eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

12gn. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien gastu- eta dirusarrerakategoria ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez dituztenak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

13gn. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 21eko 12:00etan bukatuko da.

14gn. Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dira 2000ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko artikulua eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Multzoka eztabaidatuko dira; hain zuzen ere, Parlamentuko talde bakoitzari txanda bat egokituko zaio

bere zuzenketa eta boto partikular guztiak defendatzeko.

15gn. Horren ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede izan diren gastu eta dirusarrera kategoriak eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Haien eztabaida departamentuka burutuko da, Parlamentuko Talde bakoitzak departamentu berari dagozkion zuzenketa edo boto partikular guztiak batean defenda ditzan eta, halaber, zuzenketa edo boto partikularrei buruzko txandak elkaturik dira. Zuzenketen edo boto partikularren xede izan ez direnak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

16gn. Zuzenketak onestearen edo dirusarrerako gastu-artikulu edo kontzeptuak bozkatzearen ondoriozko artikulua edo kontzeptu haiek zentzugabeak edo osatugabeak badira Aurrekontuak kontabilitate-lerroka biltzen dituen liburukiarekiko, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiak eta, hala balitz, Biltzarreko Mahaiak behar diren aldaketak sartzen ahalko dituzte, izan zitezkeen zentzugabekeriak zuzentzeko.

17gn. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio.

18gn. Biltzarreko Mahaiaren Erabakiaren bidez aldatzen ahalko dira arau hauek, Eledunen Batzarrekin bat.

**2.** Arau hauek Parlamentuko taldeen eledunei, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiari eta Foru Diputazioari igortzea, eta Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--